

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARAMAIOKO UDALA

Lizitazioa, Aramaioko Gureia auzoko euri urak bereizten dituen saneamendu sarea, elektrizitate, kale argiteria eta telefono kanalizazioak eta zoladura proiektuari dagozkion obrak kontratatzeko

Administrazio klausula berezien agiria onartu da Aramaioko Gureia auzoko euri urak bereizten dituen saneamendu sarea, elektrizitate, kale argiteria eta telefono kanalizazioak eta zoladura proiektuari dagozkion obrak kontratatzeko, jendaurrean jartzen da, zortzi egun balioudenez, Aramaioko Udalaren erregistro orokorrean (Bixente Goikoetxea plaza, 1; Aramaio; Araba), interesdunek aukera izan dezaten aztertzeko eta, hala badagokio, egoki jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteko.

Aldi berean, eta bat etorritz udalbatzak 2016ko urriaren 27ko ohiko osoko bilkuran onartutako erabakiarekin, zeinaren bidez kontratazio espedientea onartu baitzen, lizitazioa deitzen da kontratu hori esleitzeko, ondoko datuen arabera, nahiz eta lizitazioa atzeratu egingo den erreklamazioak aurkezten badira eta beharrezko gertatzen bada.

1. Erakunde esleitzaila.

- Erakundea: Aramaioko Udala.
- Bixente Goikoetxea plaza, 1; 01160 Aramaio; Araba.
- Telefonoa: 945 445016.
- Faxe: 945 445356.

2. Kontratuaren xedea.

a) Kontratu mota: obrak.

b) Azalpena: Gureia auzoko euri urak bereizten dituen saneamendu sarea, elektrizitate, kale argiteria eta telefono kanalizazioak eta zoladura proiektuari dagozkion obrak egikaritzea.

c) Gauzatzeko lekua: Gureia auzoa (Aramaio).

d) Gauzatzeko epea: gehienez 4 hilabete.

3. Izapidetzea eta prozedura.

a) Izapidetzea: presazkoa

b) Prozedura: irekia, hainbat esleipen irizpiderekin.

c) Esleipen irizpideak:

Ekonomia eskaintza, gehienez 80 puntu. Berme epea luzatzea: gehienez 20 puntu.

Irizpideen ebaluazioa nola egingo den klausulen agirian dago zehaztuta.

4. Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua: 405.965,79 euro gehi BEZaren 85.252,82 euro; zenbatekoa, guztira: 491.218,61 euro.

5. Bermeak: behin-behineko bermerik ez da eskatzen. Behin betiko bermea esleipenaren zenbatekoaren ehuneko 5 izango da (BEZa aparte).

6. Enpresaburuaren kaudimena:

Zenbatekoa aintzat hartuta, sailkapena ez da beharrezkoa. Hala ere, enpresaburuak bere kaudimena egiazta dezake, bai sailkapen hau edukita: E taldea, 1 azpitaldea, b kategoria; G taldea; 9 azpitaldea, b kategoria.

Eta bai kaudimen ekonomiko, finantzario, tekniko eta profesionaleko irizpideak betetzen dituela egiaztatuta, administrazio-oinarri partikularren pleguan zehaztutako eran.

7. Agiriak eta argibideak eskuratzea:

a) Bulegoa: Aramaioko udal bulegoak, 09:00etatik 14:00etara, astelehenetik ostiralera.

Iragarkia eta klausulen agiria web orriko kontratatzailearen profilean argitaratuko dira eta bertan kontsulta daitezke: www.aramaio.eus y www.contratación.euskadi.net

b) Agiriak eta argibideak eskuratzeko azken eguna: eskaintzak aurkezteko epea amaitu arte.

8. Eskaintzak edo parte hartzeko eskaerak aurkeztea.

a) Aurkezteko modua: paperean.

b) Aurkezteko epea: hamahiru egun natural, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Azken egun hori larunbata edo jaieguna bada, epea hurrengo egun baliodunera arte luzatuko da.

c) Aurkezteko lekua:

– Bulegoa: Aramaioko udaletxea; 09:00etatik 14:00etara, astelehenetik ostiralera.

– Helbidea: Bixente Goikoetxea plaza, 1. 01160 Aramaio. Araba.

Edo bestela, 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 16 artikuluan adierazitako lekuetan.

d) Postaz bidaltzea: Herri administrazioen kontratuen Legearen Araudi Orokorrak 80.4 artikuluan ezarritako baldintzak beteta. Postaz bidali izanaren iragarkia 945-332878 fax zenbakira bidali behar da.

e) Aurkeztu beharreko eskaintza eredia eta agiriak: klausula administratiboen agirian daudenak.

9. Eskaintzakirekitzea:

A, eta B gutun azalak dagokien ekitaldi publikoan irekiko dira Aramaioko Udaletxeko osoko bilkura aretoan, kontratatzailearen profilean iragarriko den egunean eta orduan.

10. Iragarkien gastuak: esleipendunaren kontura.

11. Kontratatzailearen profila, deialdiari buruzko informazioa jasotzen duena eta udalaren web orritik sarrera duena: www.aramaio.eus y www.contratación.euskadi.net

Aramaio, 2016ko urriaren 28a

Alkatea

LIERNI ALTUNA UGARTE